

Hezkuntza eremuko lege berriak eta euskararen normalkuntza: zenbait gogoeta

Itziar Idiazabal

Euskal Eskola Publikoaren legea eta Irakaslegoaren Hizkuntza Eskakizunen Dekretuaren inguruan zenbait gogoeta egiten dira euskararen normalkuntza ikusmiratzat harturik. Urte askotan, eta autonomia legealdiarekin bereziki, euskal eskolaren erreformaren ardatza izatetik, saihestu edo arindu beharreko obligazioa izatera mugatzen dela dirudi euskararen normalizazioak, lege hauetan. Baieztapen hau arrazoitzeko aipatutako legeen zenbait atal aztertzen dira lantxo honetan.

New laws in the area of education and the normalisation of the Basque language: some thoughts.

Some thoughts are being discussed now, considering the normalisation of the Basque language, about the Basque State School law and the decree concerning the level of language required to be known by teachers. In these laws, it seems that the normalisation of the Basque language, which has been the main point of the Basque School Reform System for many years, and above all with the introduction of the autonomy law, is reduced to becoming a requirement that has to be avoided or lightened. In order to argue this statement some sections of the laws just mentioned are analysed in this project.

«1978an garbi agertzen zen ikastolen ahaleginarekin ez zela aski. Euskal gizartearen gehien-goaren eskakizuna zen haur euskaldunak euskaraz eskolatu beharra eta etxetik euskararik ez zutenek ere euskara ikasi ahal izateko nahia. Hori lortzeko, irakas-sistema osoak zeukan egokitze lan haundia bere aurrean»

«Ezaguna da ikastolatan irakas antolamendu eta metodoetan aldaketa haundiak hasi zirela ematen. Pedagogia berriak Europan iadanik ezarriak zituen hainbat irakaskuntza aurrerapen ikastolen bitartez hasi ziren euskal irakas-sisteman erabiltzen. Eskolaren elebiduntzeak euskararen aintzat hartzeaz gain hobekuntza nabariak ekarri dizkio irakas sistemari»

Euskara eta eskola lotzeko ahaleginak zaharrak izan arren, lotura hori ez da legezstatua izan berriki arte. Legeztatze prozesua Estatuaren eraberritzearekin batera hasi zen, hain zuzen, Gobernu Zentralaren 1979ko Errege-Dekretuaren bitartez. Nolanahi ere, mugari eraginkorrena Eusko Legebiltzarraren 1982ko Euskararen Erabilera Normaltzeko legeak ezarri du. Irakaskuntzari dagokionez helburu zehatzak agertzen dira bertan: ikasle orok bere ikasketak euskaraz zein gaztelaniaz egiteko eskubidea duela aitortzen du eta horretarako Administrazioa beharrezko neurriak hartzera bultzatzen du; hala, ikasle orok, bere obligaziozko ikasketa-aldia buka-tzerakoan, bertako bi hizkuntza ofizialetan behar adinbateko ezaguera praktikoa izatea lortu nahi da.

Legehonen garapenerako eman zen 138/1983 Elebitasun Dekretuak eta urte bereko Aginduak arautu zuten Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren bitartez gaur ezagutzen dugun irakasteredu elebidunen diseinua eta urtez urte garatzen joan den irakas-sistema elebidunaren hedapena.

Lege hauek, jakina, euskal gizarteak aspalditik aldarrikatzen zuen eskaera bati erantzuteko ezarri ziren. Euskara, mendeetan zehar, eskolatik kanpo bizi izan ondoren, gerraurreko kultur pizkundeari esker hasi zen eskolatan irakasgai eta irakasbide izaten¹. Garai oparo bezain labur haren ondoko etena, gerraostean, ikastolen bitartez hasi zen apurtzen, euskara, berriro ere, eskolako bideetan ezarri. Baina, jakina, GAUR elkartearen azterlanak 1969an Gipuzkoarako, eta Siadecok 1978an Euskal Autonomi Elkarterako eta Nafarroarako egindakoan garbi agertzen zen ikastolen ahaleginarekin ez zela aski. Euskal gizartearen gehien-goaren eskakizuna zen haur euskaldunak euskaraz eskolatu beharra eta etxetik euskararik ez zutenek ere euskara ikasi ahal izateko nahia. Hori lortzeko, irakas-sistema osoak zeukan egokitze lan haundia bere aurrean. Elebakarra, aski atzeratua eta

¹Garai hartako eta lehenagoko euskal irakaskuntzaren ahaleginak ezagutzeko ikus M. Karmen Garmendia (1985) "Les ikastoles en Pays Basque d'Espagne. La question du bilinguisme scolaire", argitaratu gabeko tesia, edo I. Estornes (1983) *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko-Ikaskuntza a la Cultura Vasca (1918-1936)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza; edo G. Arrien (1983) *La generación del exilio: Génesis de las Escuelas Vascas y las Colonias Escolares (1932-1940)*, Bilbo: Onura. Ikus J.A. Irigarayren (1988) lana ere ("Euskara eta irakaskintza mendetan zehar" in *Euskara Bizitzaren kenkan*, Iruñea: Pamiela) aurreko mendeetan aintzindari izan zirenen ekarriak ezagutzeko.

arrotza zen antolamendu bat bertaratu eta berritu beharra zegoen elebiduna bihurtuko bazen.

Euskara euskal irakaskuntzaren eraberritzearen ardatza

Ezaguna da ikastoletan irakas antolamendu eta metodoetan aldaketa haundiak hasi zirela gertatzen. Pedagogia berriak Europan iadanik ezarriak zituen hainbat irakaskuntza aurrerapen ikastolen bitartez hasi ziren euskal irakas-sistemari erabiltzen: ahozko hizkuntzaren garrantzia, ekintza bidezko irakaskuntza, testu-liburuan bakarrik oinarritzen ez den irakasbidea, bigarren hizkuntzara itzulpen bidez baino murgilpenez urreratzea, eskolaren ingurua irakaskuntzan itsastea, etabar². Ikastoletan saiatutakoa eta askoz gehiago irakas sistema osoan joan da gauzatzen euskararen ezarpenarekin batera. Eskolaren elebiduntzeak euskararen aintzat hartzeaz gain hobekuntza nabariak ekarri dizkio irakas sistemari. Aipa ditzagun eraberrituak gertatu diren hainbat arlo.

- Ikasleen eskolatze adina. Bi eta hiru urterekin ikastola batzuetako lillitegi esperientziarekin hasitakoa, ikastetxe mota guztietara hedatu zen hiru urterekin eskolaratzeko ohitura. Esate baterako, 1987/88 ikasturtean, 3 urteko haurren % 99a eskolatuta zegoen E.K.A.n. Arrazoi nagusiena, haseran behintzat, lehenbailehen, euskarazko murgilketa bideratuz haurrak hizkuntza honetaz jabetzea izan zen.

- Irakaslegoaren hizkuntz prestakuntza. Datu bat bakarra aipatzeko, 1978ko Siadecoren ikerketan agertzen zena: Eskolaurte eta Oinarri Heziketa Orokorreko irakasleen datuak begiratzuz gero, Herri-Ikastetxeetako %5 baino gutxiago zen euskara zekiena. 'Euskal Irakaskuntza 10 urte' (Eusko Jaur-larritza, 1990) liburuan datozen datuen arabera, 1985-86 eko taulan ikus daiteke maila beretan eta Herri Ikastetxeetan bakarrik, % 28.2ra iristen dela EGAdun irakasleen kopurua. Hortik 1990eko datuetara joaz, berriz, beti ere ikastetxe eta irakasmila berebetean kokaturik, %41.81era iritsi zirela ikus daiteke euskarazko gaitasun hau ziurtatzen zutenen kopurua

- Hizkuntza bat irakasteak hizkuntza jakiteaz gain irakas metodoen menderatzea eskatzen du. Eta gurean berezitasun apartak gehitzen ziren: euskararen estandartze prozesuaren

«Irakaslegoaren berziklaia ahalegin handienak euskara eta euskararen irakaskuntzan eta bide batez hizkuntza ororen irakas metodoen eremuan egin dela esaten badugu ez dugu uste okergabiltzanik»

«Gurasoen eta gizartearen parte hartzea, inoiz ez bezalakoa izan da euskal irakaskuntzan, hain zuzen ere, irakasteredu elebidunek nahi-ta-nahiezko egiten zutelako»

² Ikus Idoia Fernandezek berriki (1993) aurkeztu duen tesia "Ikastolen mugimenduaren historia: 1960-1975", argitaratu gabea, UPV-EHU, Donostia.

*«Azken 20/30 urteetan, euskara ikasteak beste eskolako ikasketetan atzerape-
nik ez dakarrela eta erdarazko gaitasunean ez dagoela inolako murrizketarik frogatuta dago. Hainbat ikerketetan euskal elebidunek beste hizkuntzak ikasteko duten gaitasunen hobetzea erakutsi dute»*

«Euskal eskolak iraultza izugarria izan du, euskararen irakaskuntza heziketaren ardatz harturik, eta honek, euskararen irakaskuntza hobetzea ezezik sistema osoaren berrikuntza eta eraldaketa sakona ekarri du. Esan behar da, hala ere, euskal eskolaren elebiduntzea eta euskararen normaltzeak arazo asko dituela oraindik euskal eskolan»

behin-behingotasuna, euskarazko eskola-material eskasia, beste hizkuntza indartsu batekin lehian ihardun beharra,... Datu zehatzik ez baldin badugu ere, irakaslegoaren berziklaia ahalegin handienak euskara eta euskararen irakaskuntzan eta bide batez hizkuntza ororen irakas metodoen eremuan egin dela esaten badugu ez dugu uste oker gabil-tzanik.

- Irakasteredu elebidunak martxan jartzeak, bestalde, eskolako eta gelako antolamendu osoa eraldatu beharra ekarri zuen. D ereduan, aspalditik zetorren, esate baterako, ahozko hizkeraren garrantzia, edota euskarazko eskola libururik ez eukitzeak testu-liburuengandik libre eta bide batez lekuanlekura egokitze haundiagoa. B irakastereduan, bestalde, bi irakasle eta bi ikasgelaren arteko elkarlan hestua bideratzen zuen, honek dituen zailtasunekin, baina baita ere, funtsezko abantaila pedagogikoekin.

- Ezaguna da, bestalde, gurasoen eta gizartearen parte hartzea, inoiz ez bezalakoa izan dela euskal irakaskuntzan, hain zuzen ere, irakasteredu elebidunek nahi-ta-nahiezko egiten zutelako. Ikastoletan, dena euskaraz egiteak guraso askoren ahalegina eta beste askoren kezka ere sortarazten zuenez, eskolarekiko harreman estuagoak bideratzen ziren. Geroko B zein D ereduak ere, gurasoen aukeraren baldintzapean garatzen dira.

- Irakaskuntzan, hizkuntzak duen garrantzia ongi ezagutzen da. Euskara ezezik euskaraz irakasteak hainbat kezka eta zalantza sortu ditu euskal gizartean. Baina azken 20/30 urteetan, euskara ikasteak beste eskolako ikasketetan atzerapenik ez dakarrela eta erdarazko gaitasunean ez dagoela inolako murrizketarik frogatuta dago. Hainbat ikerketetan euskal elebidunek beste hizkuntzak ikasteko duten gaitasunen hobetzea erakutsi dute³. Frogatu da baita ere irakaskuntza elebidunak ez dakarrela beste ikasketetan atzerapenik, askotan berriz alderantzizkoa ikus daitekeelarik⁴. Guzti

³ Ikus Maria Jesus D'Espi (1988) "Adquisición de segundas lenguas en situación de lenguas en contacto. Un análisis sico-sociolingüístico". Argitaratu gabeko tesia. UPV-EHU. Donostia; edo Jasone Cenozek (1992) egindakoa: "El papel del bilingüismo en la adquisición de una lengua extranjera: el caso del aprendizaje del inglés en Gipuzkoa". Argitaratu gabeko tesia. UPV-EHU. Donostia. Tesi hauetan ikasle euskaldun elebidunek frantziara nahiz ingelesa ikasterakoan adierazten dituzten gaitasunak aztertzen dira.

⁴ Ikus esate baterako, J.F. Lukas (1990) *Trebetasun eta erren-*

honek euskarak eta orohar hizkuntzak, eskolan duen eta izan behar duen pisua behin eta berriro azpimarratu du.

- Euskal irakas-sistema osoari begira, hizkuntz lorpenak EIFE⁵ programaren bitartez aztertu dira. Ikerketa honetan Euskal Herrian inoiz egin ez den bezalako eskolako emaitzen neurketa egin da. Ebaluaketa hori egiteko ikasi edo egokitu behar izan den lan metodologia garatzea bakarrik aurrerapauso nabarmena izan da euskal irakas-sisteman. Bestalde, neurtu ahal izan da OHOk maila ezberdinetan (2., 5. eta 8.) eta irakasteredu ezberdinetan zeintzu diren euskarazko nahiz gaztelaniazko lorpenak eta lorpen horiek zein faktore psikologiko, soziolinguistiko edo pedagogikorekin dauden lotuak.

- EIFE programa ezberdinetan zehar garbi agertu dena zera izan da: euskara irakasteak ez dakarrela gaztelaniaren atzerapenik, erdaraz ikasten dutenen paretsuan baitaude euskaraz eskolatutakoen emaitzak; bestalde, euskara bigarren hizkuntza bezala irakasteko gai dela eskola frogatu da, eta euskarari dagokionez, hizkuntza honi ematen zaion denbora kopurua eta hizkuntza irakasbide bezala erabiltzeak (asignatura soila ez izateak, alegia) eragin handia duela agerian gelditu da.

- Euskararen ikasketa sendotzeko egin eta bultzatu diren ahalegin eta heziketa osagarri diren hainbat egitasmo hemen aztertzea luzeegi litzateke. Hala ere, jakin behar da udalekuak, bertsolaritza eskolak, literatur lehiaketak, barnetegiak eta beste hainbat saio, (asko eta asko ikastolaren mugimen-

dimendu matematikoa testuinguru elebidunean. Argitaratu gabeko tesi doktora. UPV-EHU. Donostia.

5 *Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina (EIFE)*, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzuak bideratu dituen neurketa ikerketaren izena da. EIFE (1986), EIFE2 (1989), EIFE3 (1990) eta HINE (1991) izan dira argitalpen nagusiak. Bertan ikus daiteke irakasteredu elebidun ezberdinen bitartez, euskarazko nahiz gaztelaniazko hizkuntz-trebetasunaren emaitzak. EIFE 1ean 2. eta 5. mailako A, B eta D ereduaren hizkuntz trebetasunen lorpenak neurtzen dira; EIFE 2an, 5. mailakoak aztertzen dira; aurreko ikerketan 2. mailan zeuden ikasleek 5. eneko lagina osatzen dutelarik; EIFE3an, berriro, 2. mailakoak aztertu ziren 1986ko ikerketan oraindik oso eskasa baitzen B ereduaren presentzia. HINE deituriko ikerketan, azkenik, 8. mailan, hau da, ezinbesteko irakas-epearen ostean, irakasteredu ezberdinetan, eta oraingoan idatzizkoan bakarrik, lortutakoa aztertzen da. Emaitza hauen adierazgarritasuna handia da, izan ere, Oinarri Heziketako, hiru ikastetxe sareetako eta hiru irakastereduez osatutako lagin zabal eta esanguratsu batez baliatu baitira.

«1984ko udarako Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean aztertzen hasiak ziren lege honek izan behar litzuzkeen helburu eta baldintzak. Besteak beste, Euskal Irakas Sistemaren dirauten hiru sareen sendotze edo berrantolatutako beharra»

«1989an agertu zen Euskal Eskola Publikoaren Lege zirraborra. Zirriborro hark, euskararen normaltze kontuan hutsune nabariak zituen eta hala adierazi zen Euskararen Aholku Batzordeak prestatuturiko lanean»

«Orohar Euskararen legea ez zen abiapuntuzat hartzen eta haren hainbat atal desagertu edo alboratu egiten ziren. Bestalde, ikastola sarearen ekarria ez zen ezertarako kontutan hartzen. Onartua izan den legean ez dago funtsezko aldaketarik aurreko zirriborroarekiko»

«Lege hau egin duen Administrazioak, gureak hain zuzen, lehendik ongi dagoena aprobetxatu eta falta dena sortu beharrean, aurretik ezer ere ez balego bezala dihardu»

duarekin batera sortuak eta gero erakunde ofizialen eskutik bideratuak) heziketa arruntaren osagarri ezezik bere baitan geroz eta garrantzitsuagozat jotzen direla edozein irakasistema aurreratutan.

Guzti honekin azpimarra nahi dena zera da: Euskararen Erabilera Normaltzeko, 10/1982 legearen helburuak bereak eginik, euskal eskolak iraultza izugarria izan duela, euskararen irakaskuntza heziketaren ardatz harturik, eta honek, euskararen irakaskuntza hobetzea ezezik sistema osoaren berrikuntza eta eraldaketa sakona ekarri duela. Esan behar da, hala ere, euskal eskolaren elebiduntzea eta euskararen normaltzeak arazo asko dituela oraindik euskal eskolan. Oraingoz, martxan jarri eta arazoan identifikapenean egin duela lanik handiena eta ikusi diren akatsak konpontzeko hainbat neurri berriren premia larria dela. Esate baterako, A irakastereduko lorpen eskasek eskatzen duten aldaketa sakona; irakasle goaren euskalduntzean nahiz didaktika prestakuntzan bide berrien asmatu beharra; hizkuntzaren ikuspuntu teorikoaren aldatzeak bere irakaskuntzan eskatzen dituen metodologiaren berritu beharra,...

Euskal Eskola Publikoaren Legea

Historia luzea duen legea da hau. 1984ko udarako Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean aztertzen hasiak ziren lege honek izan behar lituzkeen helburu eta baldintzak. Besteak beste, Euskal Irakas Sistemaren dirauten hiru sareen sendotu edo berrantolatu beharra. Garrantzi berezia hartzen dutenak herri ikastetxe transferituak eta ikastolak dira, nolabait, biak direlako Administrazioaren agintepean dirautenak. Sare bat eta besteak dituen alde onak bildu eta akatsak alboratuko lituzkeen lege egitasmo bezala ikusten zen Euskal Eskola Publikoaren Legea 1984ean eta gero ere euskal gizartearen sektore kezkatuetan (inplikatueta) hala izan dela esan dezakegu. Besteak beste, ikastetxeek behar luketen hezkuntz diseinua eta nortasuna sendotu, antolamendu-gestioa errazago eta eraginkorragoa egin, giza-partaidetza bideratu eta euskararen normaltze eginkizunetan lorpenik hoberenak bermatuko dituen legea behar zen. Orain arte, ikastolen esperientzian lorpen hobeak zeuden aipaturiko helburuei dago kienez. Herri ikastetxe arruntetan, aldiz, euskararen normalizazioan ahalegin handia nabaritu bazen ere, irakasle goaren mugikortasun eta askatasunean agertzen ziren abantailarik garbienak; nahiz eta azken ezaugarri honek, berez, hezkuntz kalitatean hobekuntzarik beti ez bazuen ekartzen ere.

Lege ziriborroz ziriborro, 1989an agertu zen Euskal Eskola

Publikoaren Lege zirriborroa. Zirriborro hark, euskararen normaltze kontuan hutsune nabariak zituen eta hala adierazi zen Euskararen Aholku Batzordeak prestatu laneari⁶. Orohar 10/1982 legea ez zen abiapuntutzat hartzen eta haren hainbat atal desagertu edo alboratu egiten ziren. Bestalde, Euskal Herrian hainbeste urtetan bertako hezkuntz eta hizkuntz eskakizunei irtenbide egokiak ematen saiatu den ikas-tola sarearen ekarria ez zen ezertarako kontutan hartzen.

Onartua izan den 1/1993 legean ez dago funtsezko aldaketarik aurreko zirriborroarekiko. Orohar lehengoan dirau. Normalizazio legearen (10/1982) hastapenei begirunea ezezik, lege honek haien sakontze ahalegin bat egiten omen du. Baina garbi dago lege honetan irakas-sistemaren euskalduntzea ez dela ardatza, lehendik jaso den eginbehar edo zama baizik. Baieztapen hau frogatzeko aipatu legearen zioak baino ez ditugu aztertuko; izan ere zioetan agertu ohi baita egitasmo batetan zeri ematen zaion garrantzia.

- Lehenengoz, garbi geratzen da eskola publikoa administrazioaren zerbitzurako tresna dela: "Eskola publikoa (...) administrazioaren iharduera zuzeneko tresna da, bai hezkuntza-eskubidea bermatzen duen Konstituzioaren agindua betetzeko, bai ezberdintasunak berdintzeko". Zioetan agertzen den esaldi honekin, administrazioa, badirudi, ez dagoela herritarren egitasmoen babesle edo laguntzaile izateko baizik eta bere eginkizunetarako behar dituen tresnak sortu eta bideratzeko. Euskal Herriak, hezkuntza kontuan behintzat, frogatu du administrazioaren aldamenean, bere kultura eta hizkuntza propioak garatzeko, bere eskolak sortzeko gai izan dela, eta bertan, gutxienez, besteak bezain emaitza onak lortu dituela, gainera. Lege hau egin duen Administrazioak, gureak hain zuzen, lehendik ongi dagoena aprobetxatu eta falta dena sortu beharrean, aurretik ezer ere ez balego bezala dihardu.

- Konstituzioaren aginduz Hezkuntza-eskubidea bermatzeko eta ezberdintasunak berdintzeko nahi dela lege hau esaten zaigu atal berean. Ezberdintasunak, jatorri sozio-ekonomikoa dutenak omen dira bereziki berdindu behar direnak. Hizkuntza ezberdintasunak ere hor daude gure gizartean beste ezberdintasun batzuk baino askoz nabarmenago. Horien berdintzeak, denontzat litzateke aberasgarri eta

«Irakaskuntzaren erreformak aldarrikatzen dituen zenbait hatsapen baliagarriak ez direnik ez dugu esango. Beti ere, jakina, euskal irakaskuntzak eskatzen dituen egokitzak egiten baldin bazaizkio eta, batez ere, euskal irakas-sistemaren elebiduntze erreforma nagusiari baldintzatzen baldin bazaio»

«Euskararen normalizazioa da Euskal Gizartearen kultur egitasmorik nagusiena; horregatik hezkuntza erreformari ere eskakizun zehatzak egin behar zaizkiola uste dugu. Euskal Eskola Publikoaren legeak ez du ikusmira hau inondik ere»

⁶Txosten honen argitarapen erreferentzia: 'Euskal Eskola Publikoaren Lege Zirriborroari Iradokizunak' Eusko Jaurilaritza, Euskararen Aholku Batzordea, Aholku Bilduma 1, 1990.

«Helburu nagusia ez da kalitatezko hezkuntza ziurtatzea, bi saretara hezkuntza sistema mugatzea baizik. Hiru edo bost sareren ordeztan bi izatearen birtuteak ez dira inon ikusten ez arrazoizten»

«Irakaspostuetarako hizkuntza eskakizunen dekretuaren alderdirik baikorrena irakasle orok euskarazko ezaguera beharrezkoa duela aitortzea litzateke. Proposamen orokor honek, halere, baditu muga eta baldintzaren guztiz kezagarriak euskararen normalkuntzatik begiratu»

gizartearentzat integrazio bide nagusia ere litzatekeela garbi dagoela uste dugu. Bestalde, frogatu du euskal eskolak ezberdintasun horiek, behar bezalako irakaskuntza bideratzen bada gaindi daitezkeela. Zergatik ez dira hizkuntza ezberdintasun horiek kontutan hartzen lege honen zioetan?

- Hezkuntza sistemaren antolaketarako LOGSE da- Konstituzioaren arabera -gure eskola-sistemaren antolamendua- ren arduraduna. LOGSEK irakaskuntzaren erreforma ere bideratu nahi du. Euskal Eskola Publikoaren legea ere erreforma horren eragile nahi da. Delako erreformak aldarrikatzen dituen zenbait hastapen baliagarriak ez direnik ez dugu esango. Beti ere, jakina, euskal irakaskuntzak eskatzen dituen egokitzeak egiten baldin bazaizkio eta, batez ere, euskal irakas-sistemaren elebiduntze erreforma nagusiari egokitzen baldin bazaio. Euskararen normalizazioa da Euskal Gizartearen kultur egitasmorik nagusia; horregatik hezkuntza erreformari ere eskakizun zehatzak egin behar zaizkiola uste dugu. Euskal Eskola Publikoaren legeak ez du ikusmira hau inondik ere. Ikus bestela ondorengo oharra.

- Euskal Komunitate Autonomoak, halere, ba omen ditu "bere kultura-berezitasunak eta ofizialak diren bi hizkuntza garatu beharrean daudenak". Euskal Herriaren gehiengoak eta bere erakundeek garbi ikusi dituzte bertako kultura berezitasunak, eta bereziki bi hizkuntza ofizialen egoera ez direla pareko. Euskararen egoera gutxituak bere aldeko neurri bereziak hartzera eraman izan du administrazioa; 10/1982 legea lekuko. Eskuaratean dugun lege berri honen zioetan, ordea, bi hizkuntzak pareko beharrekin agertzen dira. Baiez-tapen hau besterik gabe, nahiko adierazgarria dela uste dugu, legea zertarako ez den egin jakiteko.

- "Hezkuntza alorrean gaintzeko dauden zenbait gatazka konpondu beharra" aipatzen da, baita ere, zioen atal honetan. Gatazka hauek zeintzu diren, hemen, aipatzen ez bada ere, legearen historia ezaguturik, ikastolen auzia dela esan dezakegu atzean dagoen gai nagusia. Erabaki gehigarrietara eramaten du gai hau. Han helburua argi dago: 'hezkuntza-sistema behin-betiko eta zalantza gabe bi saretan, publiko eta pribatuan, egitura dadin'. Beraz, helburu nagusia ez da kalitatezko hezkuntza ziurtatzea, bi saretara hezkuntza sistema mugatzea baizik. Hiru edo bost sareren ordeztan bi izatearen birtuteak ez dira inon ikusten ez arrazoizten. Azken urteetan hiru sare izan ditugulako hezkuntza kalitatea okertu denik ez du inork esango, zenbait arlotan, eta euskararen normaltzean hobetu dela, aitzitik, bai. Besterik ez bada, hezkuntzan ere

kompetentzia bat ezartzen duelako, gurasoen aukerak bideratzeko posibilitatea emanaz. Hezkuntzan ere kalitatea nahi bada, kompetentzia baliagarria dela eta horretarako dibertsitatea nahitaezkoa dela geroz eta argiago ari gara ikusten. Baina dirudienez, hezkuntza kontuetan, garrantzitsuena Estatuko beste lurraldeetan dagoenera makurtzea da, egokia den ala ez begiratu gabe.

Irakaspostuetarako hizkuntza eskakizunen 47/1993 dekretua

Araudi hau Normalizazioaren 10/1982 legearen eskakizunetan, LOGSEren hizkuntza aipamenetan, Euskal Eskola Publikoaren bi hizkuntzen garatu beharrean eta Euskal Funtzio Publikoa arautzeko legeetan kokatzen da; irakaspostuetarako euskarazko eskakizunak arautzen ditu.

Lege honen alderdirik baikorrena irakasle orok euskarazko ezaguera beharrezkoa duela aitortzea litzateke. Proposamen orokor honek, halere, baditu muga eta baldintzapen guztiz kezkarriak euskararen normalkuntzatik begiratu. Hara hemen, laburki, guk ikusten ditugun muga nagusi batzuk:

- Ikastetxe publikoetako irakaslegoa bakarrik hartzen du legepean. Nola utz dezake euskal administrazioak babesik eta arau zehatzik gabe ikaslegoaren heren bat baino gehiago bideratzen duen irakaskuntza pribatu osoa? Irakasteredu elebidunen ezarpena ikastetxe guztientzat baldin bada, egin-kizun horretarako behar den irakaslegoaren prestakuntza-ziurtasuna -eta hizkuntzarena hain zuzen- ezin da legez kanpo utzi, gainerako sistema arautzen denean.

- Bi hizkuntza eskakizun edo maila aipatzen dira irakaslegoaren euskarazko gaitasunean. Bata osoa, nolabait esateko, eta bestea berriz iakoa edo erdizkakoa. Egia da hizkuntza-trebetasun kontuetan dena edo ezerezarekin bakarrik ezin garela ibili eta osoko gaitasuna ez duena ere aprobetxagarria dela euskararen normalkuntza ahaleginean. Hala ere, iakoa edo erdizkakoa, delako HE1 horri ematen zaion definizioa, eta batez ere, neurtzeko erabiliko diren erizpideak ez daude batere argi. Osokoa den HE2 delakorako, bestalde, orainarteko agirien baieztapenak ontzat ematen dira (EGA, EIT etabar), baina, kezkarria zera da: aurrerantzerako agiri horiek ez direla onartzen neurgailu gisara. Hainbeste urteetako esperientziari esker, akatsak izan arren, gizamailan nahiko onarpena duen agiri bat ezarri ondoren, zein arrazoi

«Nola utz dezake euskal administrazioak babesik eta arau zehatzik gabe ikaslegoaren heren bat baino gehiago bideratzen duen irakaskuntza pribatu osoa?»

«HE1 horri ematen zaion definizioa, eta batez ere, neurtzeko erabiliko diren erizpideak ez daude batere argi. Osokoa den HE2 delakorako, bestalde, orainarteko agirien baieztapenak ontzat ematen dira baina, kezkarria zera da: aurrerantzerako agiri horiek ez direla onartzen neurgailu gisara. Kezka areagotzen duena zera da: hobeagorik eskeini gabe dagoena baztertzen dela»

dago orain gaitzesteko? Kezka areagotzen duena zera da: hobeagorik eskeini gabe dagoena baztertzen dela.

«Euskararen normalizazioari begira, Euskal Eskola Publikoaren legeak eta Irakaspostuetarako Hizkuntza Eskakizunen Dekretuak saihests bideak ezezik aukera garbiak ematen dituztela esan genezake Euskararen Erabilera Arauzkotzeko 10/1982 Oinarrizko Legea albora utzi ahal izateko»

- Araupetu gabe utzi dira, beste irakasposturen artean, Ikuskaritza Teknikorako Zerbitzuko lanpostuak. Erabaki hau ere ezin da ulertu euskararen normalizazioaren ikuspuntutik. Izan ere, irakas sistemaren erreforma bat -elebiduntzearena esaterako- ikuskaritzak berea ez badu egiten nor bideratuko du? Nola bete dezake bere zeregina, hain zuzen, legearen betearaztea, legetik kanpo dagoen ikuskaritza batek? Erabaki hau atzera pauso nabaria da. Hezkuntza Sailean, 1986 urtera arte gutxienik, zalantzarik gabeko baldintza zen ikuskari berririk ezin onar zitekeela euskarazko ezaguerarik ez baldin bazuen. Eta arrazoiak hain garbiak izanik, inork ez zuen erabaki hau, legeztatu gabe egon arren, eztabaidagarri ikusten. Lege honetan, bestalde, ez da inolako arrazoirik ematen delako ikuskaritzako zerbitzua legez kanpo uzteko.

Azken konklusioak

Lege guztiek izan ohi dute agintzen dutena saihests ahal izateko bideren bat. Euskararen normalizazioari begira, Euskal Eskola Publikoaren legeak eta Irakaspostuetarako Hizkuntza Eskakizunen Dekretuak saihests bideak ezezik aukera garbiak ematen dituztela esan genezake Euskararen Erabilera Arauzkotzeko 10/1982 Oinarrizko Legea albora utzi ahal izateko.

«Azken hamar urteotako eskolaren euskalduntze garapenak askoz aurrerago ez duela joko esan dezakegu, nola eta ez den irakas-sistemaren barruan eraberritze autonomo bat ematen»

Normalizazioaren aldeko ahaleginak eskolan euskara ezartzeaz gain hezkuntza kalitatea ere hobetu duela onartzen bada, normalizazioa konpromisozko eginkizun bihurtzeak ez dugu uste, heziketa kalitatean ere aurrera pausua izango denik.

Gauzak horrela, azken hamar urteotako eskolaren euskalduntze garapenak askoz aurrerago ez duela joko esan dezakegu, nola eta ez den irakas-sistemaren barruan eraberritze autonomo bat ematen. Arestian, ikastoletan bizi arazi den auziak, egin duen kalteaz gain, erakutsi batzuk ere ekarri beharko lizkiguke. Hasteko, ez dirudi administrazioaren babes goxotik kanpo eta norberaren indarretan oinarrituz euskal hezkuntza aurrera ateratzeko adorea duen ikastola taldean gehiengo zabal bat dagoenik. Alderdi politikoek ere ez dirudi ahalegin honetan lehentasun handirik dutenik. Euskararen normalizazioan aintzindari izan den sare honen bilakaera oso adierazgarria izango da euskal gizartearen euskararekiko benetako atxikipena neurtzeko. Hainbeste urtetan eus-

kara eskolatik zokoratua bizi izan ondoren, bazirudien, geure erakundeen eskutik euskarak eskoletan lortuz joan den lekua eta errespetua euskal gizartearen gehiengoak onartua zuela. Arrazoi batek edo bestek eraginik atzerapen nabaria gertatu da administrazioaren gidaritzapean, lege batzuren eskutik ikusi ahal izan dugun bezala. Hizkuntza baten ezarpena legearen eragin hutsez egiten ez dela bagenekien; gaurko egoeran, legearen babesik gabe, ordea, askoz zailago gertatuko zaigu.

Gogoeta labor hauetan ez genuke etsipenera, arduradun politikoen salaketara edo norberaren ezintasunaren justifikaziora jo nahi. Hezkuntzan onartu berriak diren legeek euskararen normaltzearekin nola ezkontzen ziren ikusten ahalegindu gara. Orain dela gutxi arteko hezkuntzako legeetan euskararen normalizazioaren begietatik ikusten zela esan daiteke, beti-beti erabaki oso zuzenak edo irtenbide egokienak bilatzen ez baziren ere. Oraingoan, garbi dagoena zera da: euskararen normalkuntza hezkuntzan lehendik jasotakozama bat dela, itxuraz onartu behar dena baina, ahal dela, saihasbi-deak bilatuz gainditu beharrekoa.

Guzti honek alde on bat izan dezake. Beti administrazioaren zai egon beharrean, ditugun indarrak nahi duguna lortzeko bideratzen ikasten baldin badugu... gaitzerdi!

*«Hizkuntza baten
ezarpena legearen
eragin hutsez egiten
ez dela bagenekien;
gaurko egoeran,
legearen babesik
gabe, ordea, askoz
zailago gertatuko
zaigu»*

Itziar Idiazabal

Euskal Filologia Saila UPV-EHU

*Department of Basque Philology UPV-EHU
(University of the Basque Country)*